

txi
kitto!

2025eko azaroa



**IGERILARI
TREBEAK
DITU GU
HERRIAN**

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

**- HAMAR URTE BADI RA AITAK ILEA
MOZTU ZUELA.**

**-ZER DA BA? ARTISTA TXIMALUZE
HORIETAKO?**

-EZ, BURUSOILA.

Ehiztari batek esan zion lagunari:

- Poliki-poliki lehoiarengana hurbildu,

- Polkki-polkkien...
eta bapatean prrrrrrrrrtt!!!

- E? Esən nəhiko duzu grrrrrr!

- Ez ba, atzetik hurbildu nintzaion eta.

- Nondik datoz hamsterrak?

-Hamsterdameetik!



Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

zen eta esan zion:

- Medikus anderea, arazo bat daukat.

Nire puzzleak ez
dute usainik!

- Hori ez da posible!

Bota bat oraintxe bertan.

PPRRRRRAAA!

- oso larria da. Ebakuntza bat egin behar dizugu.

- Ipurdian?

- Ez gizona, ez. Sudurrean!



Jaimitok lurretik gauzak hartzen zituen
eta amonak esan zion:
-Jaimito...

-Jaimito, ez jaso lurreko ezer!
Orduan, amona...

- Jaimito laquandul

- Jaimito lagundu!

- Amona, lurreko ezer ez da jasotzen!



**BOST URTEKO MUTIKOTXOA ASPER-ASPER EGINDA ZEGOEN
AMAK ETENGABE BEHARTZEN ZUELAKO ESQUAK ETA AURPEGIA
GARBITZERA. EGUN BATEAN LAGUN BATEKIN TOPO EGIN ETA
ESAN ZION:**

-ene! ikaRagaRRI hasi zaRa JONTxu!

-JAKINA! NIRE AMAK ETENGABE UREZTATZEN NAU ETA.

AMAÑAKOAK IGERIAN



TESTUA: **EKHI BELAR** / BIDEOA: **YANIRE SAGREDO**

Amaña herri ikastetxeko hirugarren mailako ikasleak Eibarko kiroldegiko igerilekura joan dira eta bertan ikasitakoa erakutsi digute. Eta ez digute esplikatu bakarrik, baita demostrazioa egin ere!

Hodayfa, Viviane, Iris eta Souhailek igerilari trebeak direla erakutsi digute eta igeri egiten oso gustura ibili direla. Bi astean zehar joan dira kiroldegira eta, irakasleek lagunduta, hasieran igerileku handian eta txikian aritzeko aukera izan zuten.

Bigarren astean, ostera, denak igerileku handian sartu ziren eta hainbat estilotan igeri egiten ikasi zuten: txakurra, tximeleta, sugea eta krol.

Horretaz gain, flotatzen ere ikasi zuten eta salto ezberdinak praktikatzeko aukera izan zuten: bonba, buruz... eta bakoitzak asmatutakoa!

BIDEOA
YOUTUBEN





Hodayfa
3.maila

Oso ondo pasatzeaz gain,
gauza berri asko ikasi
genituen.



Iris
3.maila

Praktikatzen
jarraitzen badugu,
marrazoak izatera
iritsiko gara!



Souhail
3.maila

Gu, olagarroak,
igerileku handian
ibili ginen, 2,20m-ko
sakonerarekin.



Viviane
3.maila

Gutako bakoitzak zuen
mailaren arabera, igerileku
txikian edo handian ibili ginen.



ITURBURU

Iturburun, Gaba Beltzaren inguruko egitaraua prestatu genuen eta baita primeran ospatu ere. Goizean, mailaka aurkezturiko kanteekin, ekitaldia izan genuen frontoian eta arratsaldean, txokolatada goxogoxoa. Primeran pasatu genuen!



ARRATEKO ANDRA MARI

Arimen Gauda ospatu genuen urtero bezala urriaren 31n eskolan. Geletan, kalabaza, mamu, maskarak... egin zituzten. Bestalde, Euskal Herrian jai hau nola ospatzen zuten gogoratu genuen. Eguna girotzeko 6. mailako ikasleek izara zaharrak jantzi eta txikienen jolastordura joan ziren eurekin jolastera.



AMAÑA



Amañako ikasleok astean behin eskolako baratzerara joaten gara, baratzean zer dagoen ikusi, uzta bildu eta lurra lantzeko. Aurten denetarik landatu dugu: kalabazak, tomateak, kalabazinak, letxugak, piperrak, patatak... Hil amaieran 5 urteko ikasleek piper berdeak jaso eta eraman zituzten etxera familiarekin afari ederra egiteko!

URKIZU

Azaroaren 12, 13 eta 14an LH6ko ikasleak Astitzera irteera bat egin genuen, mendiz inguraturiko paraje paregabea, benetan! Bertako aterpetxean pasa genituen 3 egunak eta ekintza pila bat egiteko aukera izan genuen. Jentilharribide trikuharrien ibilbidea, Mendukilo haitzuloa, herri-kirolak...



LA SALLE



Gaztetxoek Armagintza Museoa eta Arotz Enea bisitatu dituzte. 3. mailakoek primerako antzerkiak prestatu dituzte eta 4.ekoak Historiaurrea lantzen aritu dira eta Ekainberriko kobazuloak ezagutu dituzte. Nagusienek besarkadak banatu dituzte kalean, denoi eguna apur bat alaitu eta samurtzeko asmoz.

SAN ANDRES

Aurten ere San Andres eskolako ikasleak hainbat barnetegitan izan dira, 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu dituzte: Bertizen, Arotz Enean eta IrriSarri Land-en egon dira. Ederki pasa genuen lagunekin etxetik kanpo lo egiten!



ALDATZE



Aldatze ikastetxeko ikasleek, ikastetxean bertan, aldaketa klimatikoaren inguruko tailerrean parte hartu dute. Mad Science-en eskutik gauza pila bat ikasi zituzten eta une bikaina igaro! Errepikatzeko modukoa izan da!



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Energiak gora egingo dizu hilabete hasieratik. Aire hotzak ez zaitu geldituko eta beti aurkituko duzu nola mugitu eta ondo pasatu.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Plan atseginak gustatuko zaizkizu: manta, merienda eta lasaitasuna. Egun laburragoak direla nabarituko duzu, baina hori ez da arazo izango zuretzat.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Hitz egiteko gogoia izango duzu eta lagunekin kontu asko partekatuko dituzu. Barre ugari aterako dituzu.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Etxeko beroa asko estimatuko duzu. Hala ere, lagunekin kalean edo jolastokian igarotzen dituzun momentuak ere oso bereziak izango dira.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*


Zure irribarreak neguko tristura uxatuko du besteengan. Oso lagun alaia izango zara eta denek bilatuko dute zure ondoan egotea.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Eskolan oso txukun ibiliko zara. Zure antolaketa gaitasunak lagunduko dizu azken asteetako lanak ondo eramaten.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Harmonia bila ibiliko zara. Gorabeheraren bat sortzen bada, zuk jakingo duzu nola bideratu guztiak bakean gera daitezen.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Hilabete lasaia izango duzu, baina zure intuizioa zorrotz ibiliko da. Lagun baten sekretutxo bat entzun eta oso ondo gordeko duzu.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*


Neguko lehen hotzek ez zaituzte geldituko. Beti gauza berriren bat probatu nahi izango duzu eta abentura txikiak bilatuko dituzu.



CAPRICORNUS

*irailak 21
urriak 20*

Azken asteetako lasaitasuna ondo etorriko zaizu. Oso arduratsua izango zara eta lanak garaiz eramango dituzu.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea berezi eta dibertigarriak sortuko zaizkizu egunero. Gelakideek begiak zabal-zabalik utziko dizkizute zure asmamenez.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Ametsak eta sormena indartsu sentituko dituzu. Zure mundu fantastikoak bakerik handiena emango dizu.



TESTUA: **IRATI ALVAREZ**

Hilabete honetan Danel Mecalalde Aldatze eskolako ikaslea, eta bere aitxixa Daniel Albeniz ezagutuko ditugu. Oso ondo moldatzen dira elkarrekin. Danel oso txikia zenetik zaindu du aitxixak eta harreman berezia sortu dute.

Zein da zuen ogitarteko gustukoena?

DANEL: Nocillazkoa.
DANIEL: Nik, berriz, urdaiazpiko edo txorizoz egindakoa.

Eta zuen janari gogokoena?

DANEL: Fideoak... karbonaraz!
DANIEL: Nik oilasko errea nahaigo. Eta garagardo bat, alkoholik gabe bada ere.

Elkarrekin musika entzuteko ohiturarik duzue?

DANEL: Etxean, batzuetan bai.
DANIEL: Eta kotxean ere entzuten dugu.

Musika-taldea gustukoena?

DANEL: Luc Ra pilla bat gustatzen zait.
DANIEL: Ni klasiko zalea naiz. Queen taldea maite dut.

Zer egiten duzue zuen denbora librean?

DANIEL: Paseatzera joaten naiz, motoa hartzen dut, bricolajea egiten dut...
DANEL: Futbolean aritzea eta skate parkera joatea izugarri gustatzen zait.

Hotza ala beroa?

DANEL: Beroa, zalantzarik gabe.
DANIEL: Bai, ni ere beroaren alde.

Zein da zuen urtarorik gustukoena?

DANEL: Uda, oporrak direlako.
DANIEL: Udaberria edo udazkena.

Zein da zuen ospakizunik gogokoena?

DANEL: Arimen gaua, mozorrotu eta goxoki bila joaten garelako!
DANIEL: San Juan jaiak, herriko jaiak direlako.

Eibarren duzuen txoko gustukoena?

DANEL: Parrokia, elizaren alboan.
DANIEL: Untzaga plaza.

ESPAGETIAK PESTO GORRI ETA TOMATE LEHORRAREKIN


OSAGAIAK:

- 500gr espageti
- Tipula more erdia
- 4 baratxuri ale
- 400gr cherry tomate
- 150gr tomate lehor olioan
- 190gr pesto gorri
- Limoi zukua
- 200ml esne-gain
- Oilasko bular bat
- Gazta birrindua
- Olio
- Ura



NOLA EGIN:

1. Kazola urez bete, gatzez ondu, ereinotz hostoak gaineratu eta sutan jarri. Bitartean, tipula eta baratxuri aleak zuritu eta txikitu. Cherry tomateak garbitu eta erditik zatitu. Oilasko bularra tiratan moztu, kazola batean olio gehitu eta oilasko zatiak gehitu. Gorritu eta gorde. Ondoren, olio pittin bat gehitu eta baratxuriak gaineratu. "Dantzana" hasten direnean, tipula gehitu, gatzez ondu eta erregosi. Tipula biguna egotean, cherryak gaineratu.
2. Lau minutu pasata, tomate lehorrak zatiturik gaineratu eta multzoa irabiatu. Hortik bi minutura, pesto gorria gehitu, irabiatu eta kontu handiz kozinatu.
3. Limoi zukua gehitu eta ongi irabiatu. Gordetako oilasko zatiak gaineratu eta ondoren esne-gaina gehitu eta bi minutuz irakiten utzi. Nahi adina gazta gehitu.
4. Ura irakiten dagoenean, pasta gehitu eta egosi. Denbora pasata, burruntzali bat egositako uraz bete eta tomateen kazolara gehitu. Espagetiak xukatu, tomateen kazolara gehitu eta ongi irabiatu.



HIEROGLIFIKOAK



Non dago Koldo?



Non daude zapatilak?



Noiz etorriko da zure anaia?

HIZKI-ZOPA

Aurkitu asteko egunak


AURKITU 12 HILABETEEN IZENAK

U	R	T	A	I	L	A	B	O	A	M	A
D	E	F	G	H	J	K	L	T	Z	A	B
M	N	O	P	R	S	T	U	S	A	R	E
A	P	I	R	I	L	A	I	A	R	T	N
B	N	M	K	L	S	D	E	I	O	X	D
M	E	K	A	I	N	A	G	L	A	O	U
A	Z	A	R	O	A	I	H	A	J	A	A
I	K	L	M	N	O	P	R	S	T	U	X
A	Z	U	Z	T	A	I	L	A	F	G	H
T	I	J	K	L	M	N	O	R	R	S	T
Z	U	X	Z	A	B	I	R	A	I	L	A
A	B	U	Z	T	U	A	D	F	G	H	K

URTARRILA OTSAILA MARTXOA APRILA
 MAIATZA EKAITZA UZTAILA ABETUIA
 IRAILA URRIA AZAROA ABENDUA

LABIRINTOA

Nondik joan behar du erleak lorearaino iristeko?



HIZKIAK ORDENATU

Ordenatu itzazu letrak eta fruten izerak jarri. Gero, dena bukatzean, boro bilbuta dauzen letrekin nitz bat sartu.

NASDIA	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
LEIAMO	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
GEZRIAE	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
ILKAW	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
NIDAMRANA	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
DIRAMAA	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
TALO MLOIKO	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
GABON
irudiak.

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
ABENDUAK 10
baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera



Aurreko asteko irabazlea




Aupa **IARA**, txapeldun!
Udazkenari lotutako
marrazki zoragarria bidali
duzu eta zeu irabazle.
Liburuak eta ...eta kitto!-
ko bisera zuretako!
ZORIONAK!

6 urte

Andrakas jaunaren bizarrak

Andrakas jauna gizon bizarduna da: zazpi metroko bizarra dauka momentu honetan... Kontua da leku batetik bestera joateko tramankuluren bat ikusten duen bakoitzean, bizarra metro bat hazten zaiola. Horregatik dauka etxean munduko artazi bildumarik handiena. Arazo berezi horrek bitxikeria ugari ekartzen dioenez, Andrakas jaunak ez du, ez, bizimodua erraza!



8 urte

Zonbiak datoz!

Villavernes herrian bisitari ikaragarriak izango dituzte. Zonbiak dira, eta ez dirudi inor konturatu denik. Pantxo, Teban eta Josezer lagunek badakite hildako biziak arriskutsuak izan daitezkeela. Ziur daude herritarrek jan nahi dituztela eta, horregatik, haiek geldiarazteko modua aurkitu behar dute. Horretarako sekulako armak eskuratu dituzte: ileordeak, errotuladoreak, komuneko papera eta pizza mordoa...



10 urte

Itzalak Kaz Madhanen

Kaixo, nire izena Sara-Li da eta botere magikoak ditut. Ahizpa zaharrago bat nuela eta nire bila zebilela jakin berri nuen. Xia Wei zuen izena eta, nire inguruan utzi zituen arrasto guztiak gorabehera, hari buruz ezer jakin gabe jarraitzen nuen. Aurorarekin nire azti-botereak probatzen ari nintzela, argi bitxi bat ikusi genuen Kaz Madhanen. Oso arraroa zen hura bezalako argi bat agertzea han, eta ahizparen seinale bat ote zen pentsatu genuen. Argi horren efektuek hainbat ondorio eragin zituzten, eta halako batean deskubritu genuen ez ginela gu haren bila genbiltzan bakarrik; beranduegi baina.



BITXIKERIAK

2005eko maiatzaren 27an, 22:07an, **Big Ben** erlojua **gelditu** egin zen, 31,8 gradu zentigradoko **temperatura altuagatik**, seguruenik.

Balea urdin baten **taupada 3 kilometro** baino gehiagora entzun daiteke.

Munduan **oinez** egin daitekeen **distantziarik luzeena 22.531 kilometrokoa** da: Magadanetik (Errusia) Lurmutur Hirira (Hegoafrika).

EUSKAL ROBOTA

LH5 eta LH6ko ikasleak ausartak, alaiak eta langileak dira.

Informatika gustoko dutenak eta abenturazaleak dira, misterioa gustatzen zaiena.

Baina berezitasunen artean ikasle bihurriak, berekoiak eta jenio bizikoak direla aipa dezakegu.

Asteartero bezala, pentsaera konputazionalerako klasean ordenagailuekin programatzen geundela, guk Legorekin sorturiko robotak bizia hartu zuen, Erdi Aroko gerlaria zirudiena. Gelako gauzak botatzen hasi zen eta soinu beldurgarriak ateratzen. Beldurtuta, gelatik ihesi atera ginen San Salvadorreko bideruntz bertako Altamira Goikoa baserriko ikuluan ezkutatzeko asmoz.


Ateari ostiko bat eman genion eta ondo-ondo ixtea lortu genuen.

Robotak atea apurtu eta Omar, Sara, Youssra eta Hamza bahitu zituen eta desagertu egin zen. Orduan, Hafsa eta Unax leihotik korrika atera ziren eskolara, informatika gelara eta bi ordengailu hartu eta Altamira Goikora berriro igo ziren, robota reprogramatzeko eta gu geunden lekura erakartzeko. Lokalizatzailearen bitartez, robota eta bahituak Arma Museoa zeudela esan zigun eta denok korrika joan ginen lagunak askatzera.

Reprogramatzerako orduan, azkar egitearen ondorioz, eztanda bat sortarazi genuen robotean, keak zeriola hasi zen eta bapatean, pufff!...SUPERAKE bihurtu zen!

Superakeak esan zigun:




-Kaixo mini super Akeak Arrateko Andra Mariko lagunak! Dakizuen bezala Eibar herri euskaldun bat nahi dut izatea, eta zuek izango zarete honen ereduak! Beraz, jarraitu euskaraz hitz egiten eta programatzen! Agian mende berri batean sartu ahal gara eta euskararen konkista deitu ahal diogu.



Zu bai margolari

Zu bai

Margotu aurpegiak robot hauei !



Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu

Zu bai

bai margolari